



Urtero bezala, laster batean banatuko dira **Euskadi Literatura sariak**: azaroaren 29an hain zuzen ere. Aurtengoan honako hauek sarituko dira: euskarazko literaturari dagokionez, Harkaitz Cano

izan da garaile *Belarraren ahoa* liburuarekin (Alberdania); gaztelaniazko saria Ramiro Pini-llarentzat izan da, *Verdes valles, colinas rojas 1. La tierra convulsa* lanarengatik (Tusquets); haur eta gazte literaturarena, berriz, Xabier Olasok irabazi du *Pupuan trapua* obrarekin (Pamiela); itzulpen onenaren saria, azkenik, Karlos Zaballak eskuratu du Émile Zolaren *Parisen Sabela* itzulpenarengatik (Alberdania & Elkar).

1982az gero ematen ditu Euskadi Literatura sariok Eusko Jaurlaritzak eta saridunen artean euskaraz edota gaztelaniaz idazten duten Euskal Herriko idazle eta itzultzailek ezagunenak daude: Bernardo Atxaga, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Lurdes Oñederra, Ramon Saizarbitoria, Koro Navarro, Martin Ugalde etab.



Iaz, 2004an, sinatutako hitzarmen-markoaren argitan, berriki, aurtengo urteari dagokion hitzarmena sinatu dute Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta **Labayru Ikastegiak**. Horri esker, 261.183 euro jasoko ditu bizkaiera aztertzen eta zabaltzen eskarmentu handia duen Labayru Ikastegiak.



Handik eta hemendik gure artea etorritakoen hizkuntza-integrazioa bideratze aldera egindako ahaleginak ugalduz doaz. Horieta bat da, hain zuzen ere, **HABEk** landutako **Aisa metodoa**. Metodoa prestatu eta zabaldu

ez ezik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren menpeko Institutuak hogeita bost bat udalekin batera hainbat ikastaro ere antolatu ditu udazken honetarako.



Aurreko hitzarmenaren iraunaldia bukatutzat eman ostean, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek **hitzarmen berria izenpetu dute Euskaltzaindiarekin**. Hitzarmena urtero-urtero luzatu ahal izango da 2009ra arte.

Hitzarmen berriaren xedeak bi dira: batetik, Euskaltzaindiaren eta herri erakunde horien arteko lankidetzarako oinarri orokorrak finkatzea eta, bestetik, Euskaltzaindiaren etorkizuneko jarduna bermatzeko, alderdi bakoitzak bereganatzen dituen konpromiso materialen zein finantzamendu-arlokoen esparrua arautzea. Aurtengoan 2.575.456 euro jasoko ditu Euskaltzaindiak.



Urtero ohi denez, **Euskararen Nazioarteko Eguna** ospatuko da datorren abenduaren 3an, Xabierko Frantzisko deunaren egunean, hain zuzen. Han-hemen egingo diren ekitaldien kaltetan gabe, ospakizun-ekitaldi nagusia abenduaren 2an Bilbon izango da. Bai Bilbon bai Gasteizen burutuko diren ekitaldietan, besteak beste, Lauaxetaren mendeurrena gogoan izango da. Hori dela-eta, Laukizko poetaren *Arrats beran* lanaren faksimile-edizioa argitaratuko du Kultura Sailak eta, era berean, berariaz sortutako eskultura jarriko du Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusian.



Bere ibilbidean etenik gabe, Kultura Sailak argitaratutako emandako **Bidegileak** bildumak karpeta berria du, 38. karpeta hain zuzen ere. Karpeta berriak honako lau euskaltzain oso

hauen nondik norakoa dakar: Juan San Martin (1922-2005), Patxi Altuna (1927), Juan Mari Lekuona (1927) eta Jean Marie Diharce *Iratzeder* (1920). Biografiok www.euskara.euskadi.net helbidean ikus daitezke.



Euskaltzaindiak ICOS (International Council of Onomastic Sciences) elkartearen XXII. Biltzarrean parte hartu zuen irailean, Pisan (Italia). "Izenak denboran eta espazioan" izenburupean burutu zen biltzarrean Onomastikari dagozkion hainbat arlo landu ziren. Adibidez, Onomastika eta hizkuntzalaritza; Onomastika eta gizartea; Literatura onomastikoa; Ponte izenak; Izen geografikoak; eta bestelako izenak.

ICOSen Nazioarteko Biltzarrak hiru urterik behin burutzen dira. Azken aldikoei dagokienez, 1999. urtean, Santiago de Compostelan (Galizian) egin zen eta, 2002an, Uppsalan (Suedian).

Azterrian ez ezik, Euskal Herrian bertan ere biltzar eta jardunaldiak prestatzen ari da euskararen akademia, eta azaroaren 24 eta 25ean egingo diren VIII. Herri Literatura Jardunaldiak dira erakusgarri. Donostian burutuko dira, eta "herri-prosa" izango da bertako aztergaia.

Abenduaren 16an, berriz, IX. Jagon Jardunaldiak egingo ditu, Bilbon, bertako elizbarrutiak euskarari ematen dion trataera aztertzeke asmotan. Jardunaldi hauek, aurreko hiru urteetan egindakoen segida dira. Izan ere, Baiona eta Oloro, Iruñea eta Tuter, eta Gasteizko elizbarrutien goerak aztertu dira aurrekoetan.



Buruntzaldeko lau enpresak euskara planak martxan jartzeko hitzarmenak sinatu dituzte udalekin. Andoingo Latz kooperatiba, Hernaniko Perfiles Especiales, Selak, S.L., eta Usurbilgo Victorio Luzuriaga eta S. Izaguirre, S.A. enpresak dira hitzarmena sinatu dutenak.

Hitzarmenaren bidez, Buruntzaldeko udalek diruz lagunduko dituzte enpresa horiek, bai euskara plana diseinatzeko eta baita inplementatzeko ere.

Hitzarmenak abiarazteko helburuarekin, Buruntzaldeko 64 enpresa bisitatu dira: 16 enpresak interesa azaldu dute urte honen amaiera aldera horrelako plan bati heltzeko eta 22 enpresak aurrerago ekiteko asmoa azaldu dute.



Zinemak sasoi betea izan ohi du irailean Euskal Herrian, Donostiako jaialdiaren bidez. Horrelaxe gertatu da aurten, beste behin. Aurten, Donostian,

euskarazko zinema bera ere albiste izan genuen. Batetik, **Aupa Etxebeste** filmaren estreinaldia izan genuen: joan deneko hamahiru urtean euskaraz idatzi eta filmatutako lan luze bakarra, alegia.

Bestetik, jaialdia bera **Obaba** filmaren emanaldiak ireki zuen, hau da, Bernardo Atxagaren obra ezagunaren gainean Montxo Armendarizek egindako bertsioa. Filma gaztelaniaz estreinatuagatik, euskarazko bertsioa ikusgai izan zen zenbait areto komertzialetan biharan bertan.

Hirugarrenik, iraila baino lehen ere, abuztuan, euskaraz filmatutako beste film baten berria jakinarazi zen. Izan ere, Aitzpea Goenagak **Zeru horiek**, Bernardo Atxagaren eleberrian oinarrituriko telebistarako filmaren grabazioa amaitu zuen. Filmazioa euskaraz egin zen, TVEk ekoizirik. Honenbestean, **Zeru horiek** da TVEk euskaraz inoiz ekoiztu duen lehenengo filma.



Xabierren urratsen atzetik izeneko proiektua aurkeztu du Cenlit argitaletxeak. Iruñeko eta Tuterako Gotzaindegiairen Elizbarrutiko Irakaskuntza batzordeak burutu du, Xabierko Frantziskoren V. mendeurrenaren kariatara. 50 irakaslek baino gehiagok hartu dute parte proiektuan azken hiru urte honetan.

Bederatzi argitalpenek eta hainbat ariketa osagarri osatzen dute proiektuari dagokion material didaktikoa, hezkuntza maila ezberdinen arabera banaturik betiere. Materialak, bestalde, diziplinartekotasuna baliatzen du eta, horregatik, arlo ezberdinetatik (Gizarte zientziak, Historia, Kultura eta Erljioa, Hizkuntza...), lantzen du Xabierren irudia.



50 urte dira Thomas Mann, Alemaniako literaturak XX. mendean izan duen idazle handienetako bat, hil zenetik. II. Mundu Gerrara bitarteko gizarte alemaniarra erretratatu zuen bere eleberrietan, estilo aldetik ere ekarpenak eginez eleberrigintzari. 1929an Nobel saria jaso zuen. **Buddenbrokttarrak**, **Mendi magikoa** eta **Fausto doktorea** dira bere lanik esanguratsuenak, euskarara itzulirik dagoen **Herioa Venezian** lanarekin batera (1992an argitaratu zen, **Literatura Unibertsala** bilduman, Xabier Mendiguren Bereziartuk itzulirik).



Irailaren 4an **Kandido Zubizarreta Azkoitia** (Zubieta-Usurbil, 1912) frantziskotarra hil zen Arantzazuko santutegian. Bertako artxibozain izan zen 55 urtez, eta hango liburutegiaz ere arduratu zen. Horrekin batera, frantziskotarren ordenari buruzko hainbat ikerketa-lan egin eta argitaratu zituen. Horien artean dira, adibidez, **Los origenes del franciscanismo en Arantzazu** eta **Inventario del Monasterio Santa Engracia de Olite**. Gainera, **Arantzazu, Un santuario vasco en el siglo XX** lan mardulean ere parte hartu zuen beste zenbait egilerekin batera.



Irailaren 8an **Joxe Mari Aranalde Olaondo** (Gaztelu, 1933) apaiz, idazle, irakasle eta euskaltzain urgazlea hil zen. Apaiz zela, Donostiako Añorga auzoan bizi izan zen 1957tik 1972ra eta urte horietan etxean hartu zuen osaba, Nikolas Ormaetxea **Orix**e. Aranalde Donostiako Santo Tomas lizeoko irakasle izan zen, 1997an erretiroa hartu zuen arte. Bertsosazale zen, eta gai-jartzaile zaildu eta zorrotza. Bertsolariei buruzko hainbat liburu osatu zituen: **Xalbador pertsularia** (1996), **Xalbador** (1998), **Bihotzak dion hura** (1999), **Bertso kontuak** (1999), **Xalbadorren barrua** (2001). Bestalde, Juan Ignacio Goikoetxea **Gazteluri** buruzko biografia idatzi zuen **Bidegileak** bildumarako, eta **Elizen arteko Bibliaren** itzulpena berrikusten ere egin zuen lan.

Joxe Mari Aranalde Euskararen Aholku Batzordeko kide ere izan zen 1982-1988 bitartean.



Irriaren 8an, aldiz, **Micaela Portilla Vitoria** (Gasteiz, 1922) irakasle, historialari eta ikertzailea hil zen Gasteizen. Liburu, artikulua eta dokumentu ugari eman zituen argitara. **Torres y casas de fuertes de Álava** doktoretza-tesia (1977) Arabako Erdi Aroko Historiaren giltzarrietakoa da. **Una ruta europea. Por Álava a Compostela** liburua (1991) Arabako Santiago bidearen nondik norakoen berri izateko ezinbesteko iturria da gaur. Beste historialari batzuekin batera, elkarlanean, **Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria** bilduma osatu zuen. Lan eskerga hori saritzeko, hamaika omenaldi eta gorazarre jasotakoa izan zen.

Goian beude.



Irailen 20 urte bete ziren lehenengo **Euskal Giro-tze Barnetegia** sortu zenetik, Euban (Amorebieta-Etxano). Barnetegiok Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzutik sortu ziren NOLEGA programaren baitan (Euskararen Normalizazio Legearen Garapena), eskolei laguntzeko, hau da, eskolatik kanpo euskaraz aritzeko aukerarik ez dutenei astebetean badarik ere euskaraz bizitzeko aukera ematea.

Hogei urtean 48.546 ikasle pasa dira barnetegi-tatik, 1.663 txandatan, eta 2.000tik gora dira bertara bildu diren talde eta irakasleak, izan Euban, Gaztelun, Alkizan, Elgoibarren, Espejon, Plentzian edo Seguran.

20. urteurrena ospatzeko, kantu bat grabatu dute barnetegi-tara jotzen duten haurrek kanta dezaten: *Barnetegira goaz* du izenburu, begiraleen hitzak, Koldo Iparragirre trikitilariaren doinua eta Segurako barnetegi-tiko begirale den Agustin Mujika "Takolo" pailazoaren ahotsa.

Barnetegi-ti buruzko argibide gehiago, www.barnetegiak.net helbidean.



Kalitatea da, ez bairik gabe, gaur egun euskararen inguruko kezka nagusienetako bat, nahiz kantitatean oraindik ere asko dagoen egiteko. Hori da, besteak beste, Euskararen Aholku Batzordeak berriaz prestatutako txosten batean azpimarratzen duena (www.euskara.euskadi.net). Deba arroan ere uste osoa dute. Hori dela-eta, Badihardugu Euskara Elkarteak **Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak** izeneko lana bideratu eta argitaratu egin du. Egileen ustez, ahozko hizkuntzan agertzen diren akatsak zuzentzea da lan horren helburu nagusia. Lan hori www.badihardugu.com helbidean dago ikusgai.



Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasleen Errektoreordetzak 2002-2004 ikasturteei buruzko datuak kaleratu berri ditu. Bertan ageri den **"Irakasleak zifretan" txostenaren** arabera, irakasleen ia herenak (%31) elebidunak dira. Kopuru horri dagokionez, EHUko irakasleen artean emakume elebidunak gehiago dira (%34) gizonak baino (%29). Aldiz, irakasle kopuruari denaz bezainbatean, askoz gehiago dira gizonak (%64), emakumeak baino (%36).

Mikel Aizpuru, Gaur Egungo Historia saileko irakasleak idatzi duenez, "Euskal Herriko Unibertsitatea izan da, euskalduntzeak aurrera gehien eta arinen egin duen unibertsitatea azken hogeita hamar urte hauetan".

Txosten osoa, www.ehu.es/euskara-orria helbidean.



Duela aste batzuk, euskalgintzan izena eta izana duen aita **José Iraola-goitia Mendibe Aita Fermin** pasiotarrari me-rezitako gorazarrea egin zaio, hainbat eta hainbat urtetan euskal hezkuntzaren eta euskal kulturaren alde egin duen guztiagatik. Gorazarre-ekitaldia pasiotarrak Amorebieta-Etxanoko Orue auzora iritsi zireneko 50. urteurreneko ospakizunen artean kokatu da.



Mari Jose Olaziregi irakasleak Bernardo Atxagaren obrari buruzko lan berria kaleratu du Reno-Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies-en tes-

tuliburuen bilduman. **Waking the Hedgehog. The Literary Universe of Bernardo Atxaga** du liburuak izena eta bertan, gure idazlearen poesiagintza, haur eta gazte literatura, narratzaio laburrak eta beste, aztertzen dira. Era berean, Atxagaren obrek nazioartean izan duten harre-ra ere bertan bildu du Olaziregik. Liburuak 54 irudi ditu: itzulpenen azalak, argazkiak, web orriak, ilustrazioak...

Bestalde, Reno-Nevadako Unibertsitateak eskaintzen duen Bernardo Atxagaren unibertsitateko literarioari buruzko on-line ikastarorako oinarri izango da.

Berri gehiago Renoko CBSren web helbidean: www.basque.unr.edu.



Albert Einstein (1879-1955) zientzialariaren *Annus Mirabilis* dugun honetan, *Elhuyar* aldizkariaren irailako aleak fisikari handia omendu zuen. **"Einstein denboraz gandi"** izenburupean, 1905ean hark

egindako hiru agerpen garrantzizkoenak aipatzen ditu aldizkariaren irailko aleak, hau da, efektu fotoelektrikoa, higadura browndarraren zergatia eta atomoen izatea, eta, azkenik, erlatibitatearen teoria.

Aldizkaria doan banatu zen Donostia International Physics Center-ek antolatutako Donostiako Kursaal jauregian "Albert Einstein *Annus Mirabilis*" lemapean egin zen goi-mailako kongresu jendetsuan.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es